




Nahia Ruandan sortu zen duela 26 urte. Haurra zela etorri zen Urruñara. Gizon itxuran hazi da eta duela gutxi agertu du jendearen aurrean benetan dena: emakume bat. ALEJO MORENO

Ruandan sortu zen duela 26 urte, eta, bera sortu zelarik, bere ama zendu zen. Txikia zela Urruñako familia batek adoptatu zuen eta bertan hazi da: besteen ispilura, gizon itxuraz; bere baitan, itxura horrekin tirabiran. Azkenean, baina, den bezala bizitzeko apustua egin du, emakume baten azalean. Ez da erraza izan, bai beharrezkoa.

Zuriz jantzita jaso gaitu eta bere azal beltzak distiratsu egiten du eguzkipean. Altua da Nahia, biziki garaia, eta aurkezpenak egin bezain laster itxuraren kontuarekin hasi dugu elkarriketa. «Zoritxarra da bai, gizartean itxurakeria da nagusi, estetikak anitz agintzen du,

eta nolabait esklabo bihurtzen gaitu, den-denak, baina naturala behar luke izan horrek guztiak». Gelditu gabe hasi da hizketan eta indartsua iruditua zaigu bere hitz jarioa. «Ea azaltzen naizen» ahul bat tartean bota du eta azalpenari eutsi dio gogotsu. «Ni gizon gorputz batean sortu nintzen eta gizon bat bezala ibili naiz urte luzez,

nahiz eta banekien emakumea nintzela. Ez nintzen gizon bezala ulertzen, ez nintzen gizon ezagutzen, baina jendeak kanpotik ikusten duena itxura da, eta itxura janzkerak egiten du askotan. Zuek, adibidez, ez duzue aldarrikatu beharrik zer zareten, karrikan ibiliko zarete eta jendeak jakingo du gizonak zaretela, arropagatik edo itxuragatik bereiziko dute zailtasunik gabe. Hori garrantzitsua da beti, asko errazten du bizitza. Azken batean besteen begietan bizi baikara eta haiek ezarritako etiketa gure gain eramaten dugu beti». Entzutea eta ulertzea oso garrantzitsua dela azpimarratzen digu, bera

nola bizi den jakiteko enpatia pixka bat beharrezkoa dela iradoki digu, eta berari buruzko erreportajearekin ikasi egingo dugula sumatu dugu supituki.

ESAJERAZIO BATEAN BIZI

«Nik ez dut erranen dotore eta garbi janzten naizela neska naizela erakustearren, baina badago kasu horretan dagoen trans pertsonarik, femeninoa den irudia agertu behar dutelako edo maskulinoa bestela; pertsona batzuek nabarmendu egin behar dute itxurarena, hau da, agian esajerazio batean bezala bizi behar dute, beste guztiei agertzeko zer diren,



ikusgarritasuna ere garrantzi-
tsua baita. Nire kasuan maite
dut eder agertzea, kokina naiz,
gustuko dut margotzea, orraz-
tea, maite dut nire presentzia
zaintzea, eta niretzat egiten
dut lehendabiziko; hori azpi-
marratu egin nahi dut. Gero,
besteentzat egiten dut. Horre-
gatik pentsatzen dut naturala
izan behar duela irudiarenak,
itxurakerian eta superfiziala
den zerbaitetan erori gabe be-
tiere».

Lapurdiko kostan bizi da
Nahia, Ziburun, eta ezaguna
da bertan, baina Muak.es pla-
taforma digitalari eskaini zion
erreportajea eta gero toki ani-
tzetan egin da ezagun. «Muak
erakusleihoa izan da niretzat,
nire errealitatea kontatzeko
bide bat, eta ez da erabaki
erraza izan, baina urrats bat
eman nahi nuen aitzina, kon-
plexurik gabe bizitzeko desira
dut; herri ttipi batean bizi naiz
eta badakit begiradak iltzatzen
direla nigan, jendeak begiratu

egiten nauela eta zer naizen
galdetzen diotela ondokoari.
Zergatik horrela naizen galde-
ra etortzen da gero, eta ez dut
erantzunik eman beharrik, nik
bizi egin nahi dut, eta naizena
izan, nahi dudana izan». Gor-
din agertzen digu bere erreali-
tatea, eta emozioz betetako
isiltasuna sortzen da gure ar-
tean, halere, arnas pixka bat
hartu, eta kontakizunari ekin
dio Nahiak, bere bizi-historia
gordina gardentasunez konta-
tuz. «Nahia ez da nire egiazko
izena, gizon izenarekin sortu
nintzen orain dela 26 urte, eta
gizon itxura
neukan orain
dela gutxi ar-
te. Afrikan
sortu nintzen,
Ruandan, bai-
na Lapurdira
ekarri nindu-
ten ttipi-ttipia
n i n t z e l a ;
a d o p t a t u a
naiz. Nire aita

**«Ni gizon gorputz batean sortu nintzen eta
gizon bat bezala ibili naiz urte luzez, nahiz eta
banekien emakumea nintzela. Ez nintzen gizon
bezala ulertzen, ez nintzen gizon ezagutzen»**

**«Badira femeninoa edo maskulinoa den irudia
agertu behar dutenak; nabarmendu egin behar
dute itxurarena besteen begietara. Agian,
esajerazio batean bezala bizi behar dute»**

biologikoak ez ninduen bera-
rekin atxiki nahi Ruandan, ni
sortu nintzenean ama hil egin
zen, eta banituen sei anaia eta
bi ahizpa gehiago. Hori da nire
lehen haustura bizitzarekin.
Gerora bizitza zoriontsua izan
dut, edo behintzat afekzioz be-
tetakoa, baina badago hor
nonbait, nigan ezkutatuta
agian, nola azaldu ez dakidan
drama handi bat».

Zail gertatzen da halakoen
aitzinean ezer pasako ez balitz
bezala galderekin jarraitzea,
eta luze iraun duela iruditu
zaigun isilune baten ondoan

haria berrar-
tu du Nahiak.
«Urruñako
euskaldun
familia bate-
an hazi eta
hezi naute,
nire familia
hori da, eta
ni euskaldu-
na naiz. Ta-
malez ez da

hobekien hitz egiten dudan
hizkuntza, baina, bueno, prak-
tikatzeko aukera gutxi izaten
dudalako aipatzen dut hori;
dena ulertzen dut eta ongi
moldatzen naiz, nahiz eta egu-
naren zati handiena frantsesez
pasatzen dudan».

Ongi hitz egiteko gako bat
lasai sentitzea dela iradoki
diogu, sobran dagoen aholkua
dela ohartuz, baina plazerez
estutu du esku hori. «Hori da
problemarik handiena, ordea,
lasai sentitzeko konfiantza be-
har da, ezagutza, eta gure gi-
zartean ez da horretarako bi-
dean pazientzia sobera. Jende
anitz bizi da azaleko kontuei
lotuta, deus interesgarririk ga-
be; gainera, interesgarria den
zerbait behar ote duen ere bu-
ruari galdetu gabe. Adibidez,
gau batean ateratzen banaiz
festa egiteko intentzioarekin,
eta jende berria ezagutzen ba-
dut, beti-beti-beti gertatzen
zaizkit egoera deserosoak. Eta
egoera horiek ez dira baitezpa-
da begirada itsaskorrekin edo
bizkarretik errandako hitzekin
sortuak; ez, hezkuntzari, mo-
ralari, ezezagutzari edo gizar-
tearen errealitateari egozten
dikiot nik».

«ORAIN NAIZ NIRE EGIAZKO NI»

Besoak zerurantz luzatu, ar-
nasketa luze bat egin eta oroi-
tzapenen kutxa zabalduko
duela ohartarazten digu.
«Gauaren ingurumarian, jen-
de berriarekin harremantzean
puntu bat iristen da non gal-
derak azalekoak diren; pun-
tualizatu nahi dut batzuekin
gertatzen dela, ez denekin nos-
ki, baina segituan dakit batzuk
ez daudela eroso, badutela
kezka zerbait buruaren barne-
an, edo urduri daudela bestela.
Ez dakitelako nola hitz egin ni-
ri, eta horrek anitz zailtzen du
harreman normal bat. Badira

galdetzen didatenak ea operatua naizen, horrelaxe, hitz egiten hasi eta gutxira, eta noski, erantzun hori lagunei baizik ez diet ematen, bestela inoiz ez dut erantzuten. Modu batean da... ni hasiko banintz galdetzen... zuk zakil handia duzu ala ttipia? Hau da, intimitatea intimitatea da beti, norberari baino ez dagokion eremu loretsu bat».

Eguneroko horretan dituen zailtasunak bata bestearen gibeletik kontatzen dizkigun arren, irribarrea eta alaitasuna eskaintzen ditu Nahiak orobat. «Betidanik ezagutzen nauten lagunek erraten didate ongi ikusten nautela, orain egiazko ni naizela, ez zutela zalantzarik lehen, hau da, bazekiten neska nintzela baina orain osoki naiz emazte bat. Hala ikusten naiz».

Prozesu bat izan zen ordea, eta biziki luzea, hala aitortu digu arrapaladan, generoa, identitatearen inguruko galderak bata bestearen gibeletik ukan zituelako berak. «Duela urte gutxi izan zen nire erabateko aldaketa, ordura arte gustuko nituen neskek entzuten zituzten musika eta aldizkariak, baina ez nuen ulertzen nire barnean zegoenaren dimentsioa, bestalde, mozorroak bezala ikusten nituen emazte jantziak. Baina behin bizarra kendu nuen, ilean trentzak egin nituen eta lagunartean kamisetarik gabe agertu nintzen, eta denek erran zidaten emaztea iduri nuela. Eta hara! Hor aurkitu nuen nire egiazko ni, ez dut erran nahi kasualitatea izan zenik, baina bai inflexio puntua».

EZ DA PAUSO ERRAZA

Sakon eta baikor mintzo delarik sekulako energia atzematen zaio. «Batzuek erraten didate



aholkuak eta abar eman behar nituzkeela besteentzat; hormonak hartu edo ez, operatu edo zer egin... baina nahiko lan badut nirekin. Nik eman nahi die-dan aholku bakarra da izateko haiek direna, aske ateratzeko karrikara, nahi duten bezala». Keinu bat egiten digu, aipamen horretan zerbait ahortzi balu bezala. «Urteak pasa arau femeninoagoa naiz ni, laserrarekin tratatzen dut bizarrarena, azala finagoa dut, borobilagoa naiz, baina niri identitatea interesatzen zait; nor naizen jakin eta naizen bezala bizi. Ez da batere erraza, eta nik xantza ukan dut, nire gisako errealitatea duten pertsona batzuek ezin dutelako lanarengatik nahi luketen bezala jantzi, lana beha-

«Gau batean ateratzen banaiz festa egiteko intentzioarekin, eta jende berria ezagutzen badut, beti-beti-beti gertatzen zaizkit egoera deserosoak. Gehienak, ezezagutzari lotuak»

«Behin bizarra kendu, ilean trentzak egin eta lagunartean kamisetarik gabe agertu nintzen. Denek erran zidaten emaztea iduri nuela. Eta hara! Hor aurkitu nuen nire egiazko ni»

rezkoa baita bizitzeko eta ezin baduzu zu zaren bezalakoa izan... nola egin?».

Ez dirudi erantzun errazeko galdera bat, ez. «Adibidez, laster diskoteka bat inauguratzerara noa Parisera, eta hiri handia da Paris, anonimotasunaz gain aukera anitz eskaintzen ditue-na. Aspaldiko lagun batek egin zidan gonbidapena, atiko horietan modan jartzen ari diren diskoteka bat da, jende anitza izango da bertan, eta *glamour* ikuspuntutik badu xarma, halako giro batean trans pertsona batek eroso egin dezake lan, zerbitzatzen edo marketinean edo... Baina, aldiz, arras zaila da errealitate orokorra».

Aurrez lan desberdinetan aritu bada ere, Frantzian ezaguna eta

biziki errespetatua den Vincent Faget abokatuaren idazkaria da Nahia. «Gustura egiten dut nire lana, anitz ikasten dut eta pozik nago» aitortzen digu, eta lanean hasi zenean ez zela orain bezala jantzen irribarre batekin luzatzen digu. «Behin zuzenki galdetu nion nagusiari: ‘etor naiteke emazte jantziekin?’. Eta berak galdetu zidan: ‘baina nola emazte jantziekin?’. Ba horixe bera, emazte bat bezala. Etortzeko erran zidan, eta ikusiko genuela gero. Uste dut Faget jauna kontent dagoela egiten dudana lanearekin, abokatu langintzan konfidentzialtasuna eta errespetua oinarritzekoak direla erraten du berak, bezeroekiko arre-ta, adeitasuna, hor langilearen bizitza pribatuak ez duela zeri-kusirik, eta nik uste dut egin beharreko lana ongi egitea dela inporta duen bakarra, beste guztiak ez du tokirik». •

Jon Garmendia